



Suteak etxean: hobe da prebenitzea

Nafarroako  **Gobierno**
Gobernua **de Navarra**
Babes Zibilerako Zerbitzua
Servicio de Protección Civil

Suteek eragindako heriotza kopururik handiena lotan gaudenean gertatzen da.
ETXEETAN JARTZEN DIREN SU-DETEKTAGAILUEK BIZIAK SALBATZEN DITUZTE.

Kontuz ibili tabakoarekin

- Ez ezazu erre ohean zaudela.
- Ziurta ezazu zigarretak ongi itzalita daudela hautsontzietan. Ez hustu sekula hautsontzirik paperontzian.

Instalazio elektrikoa gaizki badago edo gaizki erabiltzen bada, sutea izateko arrisku handia dago.

- Ez kargatu sobera entxufeak bertan biderkagailuak jarritz.
- Erabili entxufe eta konexio normalizatuak.
- Entxufetik atera gailu elektrikoak erabili ondotik.

Sukaldea, toki bereziki arriskutsua

- Garbitu aldiari behin sukaldeko ke-kanpaia, sutegiak eta ekonomikak. Hodietan koipea eta zikinkeria pilatzen bada, suteak sor daitezke.
- Ez ahanzi eltzea, kazola edo zartagina suan.
- Ez bota sekula urik sua dariola dagoen zartaginean edo frijigailuan. Erabili zapi heze bat edo estalki bat.

Kontuz ibili gasarekin

- Egin instalazioaren obligaziozko berrikuspen guztiak.
- Gela batean gasezko sukaldetik, berogailurik edo estufarik baldin badago, aireberritzeko irteera eduki beharko du kanpoaldera.
- Gasa erabili ondotik, itxi beti haren giltza.
- Etxebizitzan gas usainik sumatzen baduzu, ez piztu argia.

Tximiniak eta estufek suteak eragin ditzakete

- Ez paratu altzaririk, arroparik edo gortinarik haietatik hurbil.
- Garbi eduki beti tximiniaren aire-lasterra, hondarrak eta trabarik gabe.
- Ez bota txingar edo errauts berorik zakarrontzira.

Hurrek ez dakite sua zein arriskutsua den

- Ez utzi haurrak bakarrik etxean; beti pertsona helduren batek zaindu behar ditu.
- Pospolok eta metxeroek haurren eskumenetik eta bistatik aparte egon behar dute.
- Kasu eman gai piroteknikoekin.

